

Lide Urteaga Riaño

F maila • 1 saria



Kaixo! Lide Urteaga nauzue, 9 urteko neska beasaindarra. La Salle-San José ikastetxean LH 4.maila burutzen ari naiz.

Nire zaletasunak marraztea, pianoa jotzea eta kirola egitea dira, batez ere saskibaloia dut gogoko. Baina gehien gustatzen zaidana familiarekin bidaiatzea eta lagunekin egotea da.

Sari hau nire familiari eskaintzen diot.

POZEZKO MALKOAK

Amak egunero-egunero esnatzen nau. Marrubizko muxutxo piloa eman, ilea laztandu eta nire kizkurrekin jolastu ondoren, kilimak egiten dizkit. Amaren maitasun errazioak gosaltzeko hartzen ditudan zerealak baino indar handiagoa ematen dit. Goizero itxaroten dudak momentua da. Baina gaur amak masailak bustita zituen, kilimakin ahaztu da eta behera ezer esan gabe joan da. Egun hauetan triste dago nire ama. Badakit negar egiten duela begiak hazi-hazi eginda jartzen zaizkiolako, ping-pongeko pilotak bezala. Alergia dela esaten dit baina andereño Anek alergia udaberrian sortzen direla esplikatu digu eta horregatik Xabat arnasestuka eta doministikuka aritzen da sasoi horretan. Orain neguan gaude.

Nire ama triste dagoenean ez ditu ezpainak margotzen eta gaur lanera ezpainak margotu gabe joan da. Ama triste dagoenean, ni ere triste egoten naiz, ez dut asko hitz egiten eta txiki-txikia egiten naiz.

Nire ama eta aita banandu behar direla uste dut. Gurasoak haserretzea nahi ez dudanez, garaiz iritsi naiz parketik. Nire logelako apalak txukundu ditut, matematikako lanak bakar-bakarrik egin ditut baina ez ama eta ez aita, ez dira konturatu. Aita oso serio eta arraro dago, telebistaren aurrean jarrita Doraemon katu kosmikoa ikusten ari da. Lehen aitari etxe bila hasi behar dela esaten entzun diot. Amak eskuarekin bere ile sorta atzeraka bota eta buruarekin baiezko keinu bat egin dio baina nik ez ditut bi etxe nahi, ezta bi urtebetetze festa Loreak dituen bezala. Biak maite ditut eta biekin egon nahi dut.

Geroz eta tristeago nago, malkoei ezin eutsiz, txiki-txikia egiten ari naizela sentitzen dut, ia-ia ikusezina. Amari begira jarri naiz eta nola ez dakidala ea banandu behar diren galdetu diot.

-Nork esan dizu hori bihotza?- erabat harrituta erantzun dit.

-Nondik atera duzu hori, ederra?-telebista itzaltzen zuen bitartean esan du aitatzok.

-Azkenaldi honetan barre gutxi egiten duzuelako, amari kilimak egitea ahazten zaiolako eta zu, aitatzok, aspaldian kantu kantari ez zabiltzalako-negar malkoak masailetan behera irrist egiten nituela erantzun diet.

Amak goxo-goxo bere magalean eseri nau eta bien artean den-dena argitu didate. Lantegia ixteko arriskuan egon dela eta, ama oso kezkatuta ibili da baina arazoa konpontzea lortuko dutela ere esan dit aitatzok. Etxearena, berriz, arazoa bada ere, arrazoia zorionekoa da: gure familia handitu behar da bikiak bidean datoz eta! Hau poza, bikiak!! Bat-batean eta aspaldian ez bezala handi-handia egin naiz.

Aita eta ama estu-estu besarkatu ditut eta hiruon begi ertzetan pozezko malkoak agertu dira.